

IDEIA

Etxe guztietan *arazo berdina* dago: erosketak egiten ditugunean *janari asko* erosten dugu, baina ondoren erositako guztia *ez dugu bere epean jaten* eta horregatik janari asko kadukatu egiten zaigu eta ondorioz, *zakarrontzira bota* behar dugu. Hori dela eta, ALFA.EAT *aplikazio* sortu dugu, honako arazo hau ekiditzeko .

Gure *helburua* etxean xahutzen den janariaren zifra murriztea da. Hau da, etxean daukagun janariarekin erabilpen ona egitea eta beharrezkoak ez diren gauzak ez erostea. Horretarako gure teknologiarekin zure eskuetan edukiko duzu *informazio* osoa zure janaria aprobetxatzeko eta ez botatzeko, dirua aurreztuz. eta, denen mesederako, ingurumena hobetu kudeatuz. Honekin, etxean xahutzen den janariaren *ehunekoa murriztuko* dugu eta ondorioz gizartean xahutzen den janariaren kopurua murriztuko da.



"Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik, urtero, 350.000 tona inguru xahutzen dira: Urtero alferrik galtzen den janariaren % 42 etxeetan xahutuko litzateke. Ekoizpen prozesuetan, berriz, % 39 inguru galduko litzateke, jatetxeetan % 14 eta banaketan % 5. "

IDEIA

Aplikazioaren **erabilera oso erraza** izango da; erosten ditugun produktu guztien kadukatze datak ez ditugulako banan banan sartu behar. Alde batetik, hozkailu bakoitza **kamara** bat izango duelako atearen barrualdean ipinita eta horrela hozkailuan sartzen ditugun janari bakoitzaren irauntze data zuzenean irakurriko ditu, guk ezer egin gabe eta aldi berean zuzenean informazio hori gure profilean gordeko da. Bestalde, barazkien eta fruten kasuan hozkailuak azpien izango duen **pisuari** esker, gauzak sartzerakoan eta irteterakoan, zuzenean jakingo dugu zenbat pisu txikitu eta gehitu den produktu bakoitzearekin. Kamarak, Google-ek erabiltzen duen antzeko teknologia erabiliko du: adimen artifizialarekin elikagaiak identifikatuz.

Gainera, etxean, lanean edo edozein lekutan egonda, aplikazio honi esker, gure hozkailuan dauzkagun janariaren iraunkortasuna ikusteko aukera izango dugu, eta zerbait falta baldin bazaigu, aplikazio honek **abisatu** egingo gaitu. Abisu honi esker, etxera bueltatu baino lehenago supermerkatutik pasatzeko aukera baldin badugu etxean falta zaiguna, **automitikoki** gure erosketa saskian gehitzea ere proposatuko digu.

